

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko apirilak 1 / IV. urtea / 121. zenbakia

Osasunbidea, noren esku?

Haize bilduak jotzen ari dira Osasunbidean. Marrantaturik eta baita sukarrarekin ere dabilela dionik bada, ez baitira eskasak aspaldi honetan jasaten ari den erasoak. Aste honetan bertan Iruñerrian dauden 12 lehen osasun laguntzarako zentroetako 19 arduradunek beren dimisioa aurkeztu dute, bertan egiten ari den politika dela eta. Haien arabera, osasun arloaren oinarria den sail honetako politika «zeharo okerra» da, eta osasun publikoaren prestigioaren galera ekar lezake. Halaber, Famili Plangintzarako Zentroak (COFES) paratzeko eskaera areagotu egin da hainbat zonatan, eta Iruñeko auzo batzuetan —Txantrea, Donibane, Azpilagaina eta Alde Zaharra— osasun zentrorik ez dagoelako kexu dira auzo elkarteak eta profesionalak.

Atzean, pribatizazioaren mamua, Azpilaginean hasi zen esperientziak aurrera egin ez bazuen ere; batzuen ustetan nahastea sortzeko asmoa dago, bide hori indartu ahal izateko, Osasunbidea esku pribatuetan uzteko, alegia.



Zubian barna

BINGEN AMADOZ



More kolorea

Errebindikazio feministen laguna bihurtu da egun more kolorea, alegia orain dela ez hainbese urte, aste santuko ospakizun erlijiosoekin guztiz lotuta zegoena. Ez dakit gaur egun apaizek more kolorea eabiltzen duten santuak estaltzeko ezta orindik estaltzen dituzten ere, baina kalean morea emakume borrokatzaileen jabea da beste inorrena baino. Elementu berak esanahi desberdina izan dezake garaiaren arabera. Hala gertatu da ere musika klasikoa-rekin. Garai batean aste santuan entzuten zen inoiz baino gehiago, derrigorrez gainera, ezbaizten beste ezer aditzen ahal ostiral santuan. Nahi ta nahi ez denok izan behar ginen klasiko eta morezale. Jakina, ez dira sobera maite izaten inposaturiko kolore eta musikak eta beharrik egun Bach eta Mozart ez direla erlijio edo politika zehatz batekin identifikatzen, ~~hau~~ da ezagutu ditugula askatasunean. Aldatu eta hobetzen ez direnak bestelakoak dira.

Aspaldi honetan ez da izaten goxo estatu honetan komisaldegi batetik pasatzea. Askotxo dira egoitza horietan onik sartu eta hilik atera direnak eta askoz ere gehiago bertan egonda heriotza gertu sumatu dutenak. Jaime Iribarren beste bost gazteekin batera esperientzi latz horretatik pasa arazi dute berriki. Tratu txar eta torturen ondorioak nabariak ziren Nafarroako gaztediaren ordezkari nagusiarengan. Aurrez aurre duguna ikusteko ez da inongo laguntzarik behar. Gure gizarte honetako hipokresiarri esker, errez egiten zaie batzuei urrun gertatzen diren gaiztakeriak salatzea eta hemen bertan oztupo guztiak jartzea beren menpeko indarrak buruturiko ekin-tza lazgarriak argitu ez daitezen.

Itsuagorik ez da ikusi nahi ez duena baino eta badira gure artean horrelako jokabide dutenak. Besteok berriz ongi irekiak ditugu begiak aspaldi honetan eta torturatzen dela jakiteak sentimendu bikoitzak sortzen dizkit. Batetik gertutasuna eta elkartasuna torturatuekiko eta amorruta nazka torturatzaileekiko eta baita praktika ikaragarri horiek posible egiten dutenekiko.

ERAKUSKETAK

'Amazonia, azken paradisu' izeneko erakusketa zabalik dago Iruñean apirilaren 24a arte. La Caixak antolatuta eta Iruñeko udalaren laguntzarekin, Gotor Lekuko aretoan dago ikusgai. Astelehenetik larunbatera arratsaldean dago zabalik, 18.30etatik 20.30ak arte, eta igande eta jai egunetan goizez, 12.00etatik 14.00etara.

Igor Mitoraj eskultorearen erakusketa zabalik dago Iruñean, Nafarroako Museoaren aretoan, maiatzaren 8a arte. Lan egunetan goizeko 10.00etatik 14.00etara eta arratsaldeko 17.00etatik 19.00etara ikus daitezke eta jai egunetan goizez bakarrik. Astelehenetan itxita dago.

BERTSO SAIOAK

Jon Sarasua, Iñaki Murua, Manolo Arozena, Andoni Egaña, Xabier Euskitze eta Sebastian Lizaso bertsolarien saioa izanen da igande honetan, apirilak 3, Elizondon, arratsaldeko 20.00etatik aurrera. Herriko pilotalekuan ospatuko da, eta Patxi Larretxeak eginen du gaijartzaile lana.

Estitxu Arozena, Igor Elortza, Aitor Sarriegi, Xabier Silveira, Unai Agirre, Urko Atxotegi, Unai Iturriaga, Ibai Esoain, Ion Maia eta Ion Garmendia bertsolariak ariko dira gaur, apirilak 1, Etxarri Aranatzan, Jarraik antolatu dituen GAzte Topaketan barruan. Goizeko 9.30etan hasiko da bertso emanaldia.

BESTELAKOAK

Mus, Partxis eta Xake txapelketak antolatu ditu Iruñeko Zaldiko Maldiko elkarteak. Euskaldunentzat zuzenduak, astegunetan jokatu dira kanporaketa ezberdinak, eta Nafarroako txapel-dunek Donostiako Arrano Beltza eta GAsteizko Bagare Elkarteko kontra jokatu dute. Izena emateko Zaldikora hurbildu edota 21 04 30 telefonora deitu behar da, arratsaldean.

ZINEMA

'Por encima de todo' izenburuko pelikula botako dute heldu den ostegunetan, apirilak 7, Tallako Español zinemaren. Herriko Kultur Patronatoak antolatuta, bi saio izanen ditu, bata arratsaldeko 20.00etan eta bestea gaueko 10.30etan. Sarrerak 200 pezetan saltzen dituzte.

NAFAR KRONIKA

GAIZKA ARANGUREN

Aberri Eguna. Zein Eguna? Zein Aberria?

Garai bateko Eusko Alderdi Jeltzalearen Alderdi Eguna Aberri Eguna bihurtu zenetik hainbat udaberri loratu da. Oraiko gazteek —eta ez hain gazteek— 'Berpizte Igandea' Alderdiaren Eguna ospatzeko data zela ez dakite. Kointzidentzia Nazional-Katolikoa ez da Espiritu Santuaren eraginaren ondorio, aspaldian hildako 'Euskaldun-Fededun' binomioaren ezaugarria baizik.

Alta, 'Eguna', berpizte igandea izatearen hasierako arrazoia nagusiak ez du gaur balio handirik. Nola nahi ere, urtero igandea izateak abantaila aunitz badu jendea biltzeko, eta nik bederen, ez dut, ateotasunak bultzatuta, egunaren aldaketa eskatuko. Bertzelakoa da ordea 'Aberria' kontzeptuaz eta erranahiaz dudak kezka. Izan ere, gero eta irmotasun handiagoz ukatzen dut 'Euskal Herria' NAZIOA denik. Urteak aitzina, Euskal Herriko lurra eta jendeak hobe ezagutzen ditudala uste dudanean heinean, orduan eta gezur handiagoa iduritzen zait Euskal Herria NAZIO bakar bat dela. Gero eta ziurrago naiz,

Euskal Herrietaz mintzatu beharra dagoela. Zazpi Euskal Herri. Sei nahiko nuke nik! Baina... Gaztelar eta Gipuzkoarrek Nafarroa Garaia menderatu zutenetik, Goi eta Beherekoak gero eta ezberdina egin garelakoan nago,

lukete bizkaitar bat bere lehendakari? Zenbaterik inongo lehendakari? Zertarako lehendakariak? (Hemen joera anarko-abertzale-nafarra nabaria da).

Argi dago era honetako galderen eta hausnarketan argita-



Uste izaten dena baino gutxiago hala ere. Zorionez.

'Navarro de Nacion' zioen Arturo Kanpionek. 'Estados Vascos Independientes' aldarrikatzen zuen. 'Karistios, Bardulos y Autrigones Vasconizados' (probintzianoak) erran zuen Juan Cruz-ek Telecincon. Goi nafarren lehen lehendakariak, bai. Nafarroako abertzaleak, nafar abertzaleak ala abertzale nafarrak? Berdina al da? Baigorri urteoro ospatzen dugun Nafarroaren Eguna herrialde baten eguna ala Nazioaren eguna da?. Zenbat nafar abertzalek onartuko

ratzeak ez diola kazetari bati lana aurkitzeko bidea errazten. Eta zer!? Aspaldi honetan autotzentsuraz nazkatuta nago. Pentsatuko duzu, irakurle, zertan ari ote natzaizun nafar abertzaletasunaren zioaz... Aski lan badela euskal abertzaletasunaz Nafarroan zabaltzen holako katramiletan sartzeko... Hori da! Euskal abertzaletasuna zabaltzen! Eta diot nik: mekauen, baina zertarako? Ez al da errazago zabalduta, errortuta dagoenari estalkia kentzea? Nafarron Aberria Nafarroa da. Euskal Herria, Nafarroa Handia. Ez ala?

ASTEKO PERTSONAIK



Bittor Elizagoien
Bertsolaria

Hasiera batean txapela Lesakan geratuko zela bazirudien ere, azkenean Baztan aldera eraman zuen Bittor Elizagoien bertsolariak sari preziatu hau. Orain hamabost urte hasi zen lan honetan gazte hau, eta izugarri kontent agertu zen joan den igandean. Lehia handia sortu da txapelketan, aurrekotan baino gehiago, baita istiluak ere, eta gazteek maila ona erakutsi dute. Estitxu Arozena bigarren geratu baita, puntu gutxitara gainera. Elizagoien ez zegoen faboritoen artean, azken urte hauetan garaile izan den Arozena edota Arzalluzek zituzten alde apostu gehienak, baina azkenean kale. Txapela lortu eta gero, Bittor Elizagoienek gogoratu zituen orain dela hamabost urte Jexux Letek esan ziona 'segi lanean, eta egunen batean txapeldun izanen zara'.



Alfredo Jaime
Iruñeko alkatea

Berriro protagonista bihurtu zaigu Alfredo Jaime Iruñeko alkatea. Aberri Eguna dela eta, ez dio Herri Batasunari Iruñean egin behar zituen ekitaldi batzuk egiteko baimena. Eta ez hori bakarrik. Euskararen erabilera Administrazioan arautzeko aurkeztu berri den Dekretoa errekurrituko duela adierazi zuen alkateak joan den asteartean, bere ustez. «Euskararen Legearen aldaketak somatzen baitira Dekretoan, eta hortik ez naiz pasatuko». Hori bai, deus egin aurretik udaletxeko zerbitzu juridikoek gaia sakonki aztertuko dutela ziurtatu zuen, «ondoren, emaitzak ikusita erabakiko dugu, baina guk alegazioetan eskatu duguna ez baita betetzen errekurtsioa jarriko dugu, eta pertsonaldi eramanen dut UPNera».

AHAZTU GABE!

TOPAKETAK

Asteburu luze honetan ekitaldi ugari izanen dira Etxarri-Aranatzan, Jarra mugimenduak antolatuta. Gazte Topaketak delako hauetan musika, bertsoak, zinema, eztabaida, antzerkia, mendi ibilaldiak eta abar izango da. Atzo hasi bazen ere, oraindik pare bat egun geratzen dira, anitz gauza egiteko aukera, beraz. Gaur gauean kontzertu bikaina eskainiko dute Patagonia, Eskixu, EH Sukarra, Platero y Tu eta Def Con Dos taldeek, hamarretatik aurrera, honetarako bereziki antolatu den karpa erraldoi batean. Bihar, 'astelehena' pasatzeko edo, mendi martxa antolatu dute San Donatora, goizeko 9.30etan. Hala ere, haraino joan nahi ez dutenek ere izanen dute zer egin eta zer ikusi herrian bertan, erakusketak, tailerrak eta bestelakoa, hain zuzen. Arratsaldeko pelikula, antzerkia, jotak eta bestelako ekitaldien ostean Bittor Aiepe kantariak eskainiko du saio berezi bat. Ondoren, rokanrola nagusituko da, Jojo ta Ramuntxo, Banda Basoti, Baldin BADA, La Polla Records eta Su Ta Gar taldeekin. Gaueko haurrentan izanen da kontzertua.

JENERO XUMEKOAK

Hermes'en hobiarriko mezua

Ez egin negar niregatik. Hau ez zen nire aberria. Nire benetako aberririk erbesteratuta bizi izan naiz. Orain nire aberrira noa. Esfera biribil zerrutiarrara nator, zeinera banaka denok etortzeko beharra bait dugu.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien ginetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Aras

Pasioaren azken urtea?

TXARO SATRUSTEGI / IRUNEA

Pasioaren kapitulu guztiak antzetzuko dituzte aurten ere Arasen, azken 13 urteotan egin duten bezala. Hala ere, antolatzailerik adierazi dutenez, gerta liteke aurtengoa azkena izatea, «ez baitugu inolako laguntzarik eta herriko jendea aspertzen hasia delako. 150 biztanle gara eta ia guztiak gaude prestakizunetan sartuak». Errepresentazioaz gain, urtetik urtera gehitzen joan da bertara hurbiltzen den ikusle kopurua, beraz, herriko askok trafikoa antolatu, bereziki jartzen duten tabernan lan egin eta bestelakoetan ibiltzen dira. «Laguntza txiki bat ematen digu Nafarroako Gobernuak, baina ez da nahikoa, ikusi egin beharko da zer gertatzen den».

Gaur arratsaldean hasiko da errepresentazioa, ordu bietan, herriko pilotalekuan. Bertan, Pasioaren kapitulu guztiak antzetzuko dituzte, orduko jantziak eta hizkera erabiliz. Testuak Bibliatik eta pelikula batetik hartu zituzten, eta jantzi batzuk alokatuak dira. Urtero jende berberak egiten ditu rol nagusiak: «Horrela ez dago hainbeste saio egin beharrik, gogoratzen baitugu pertsonaia».

Milaka lagun biltzen dira herriaren Ostiral Santuan. «Gero eta jende gehiago etortzen da, batzuk, erlijiosoak direnak, Pasioaren historia berriro ikustera, eta beste batzuk ikuskizuna delako etortzen dira, pertsonaia, jantzi bereziak, dekoratuak eta muntaia polita direlako». Amai-



Arasko herri osoa bilduko da prozesioan.

tzen denean, guztien txaloak eta zorionak jasotzen dituzte. Hitzekin batera, abesbatza ere izaten da bertan, urtero ezberdina, eszena bakoitzean kanta aproposen bat abesteko.

IRUNEAN Iruñean ere ospe handia du Ostiral Santuko prozesioak. Arratsaldeko zazpitan abiatuko da, Dormitaleria kaletik (bertan baitago Hermandad de la Pasion del Señor antolatzailerik) eta Alde Zaharreko kale

nagusienak zeharkatzen ditu, ibilbide luzea eginez: Katedrala, Navarrerria kalea, Kale Nagusia, Ciudadela, San Anton, Gaztelu Plaza, eta berriro Dormitaleria kalera, amaitzeko.

Hamabi paso ateratzen dira: Ama Birjina, Azken Afaria, Jesus Iltzatua, Jesus Gurutzetik jaisten, eta abar. Hauetaz gain, 'El arca de la alianza' izenekoa ere ateratzen da, ibilbidea egitera. Mozorroek ematen dituzte pasoak, morez eta zuriz jantzitakoak, eskuan kandelak dituzte-

larik. Hauekin guztiakin batera, beste pertsonaia ugari ateratzen dira, garai hartakoak, orduko jantziak: juduak, erromatarrak, Jainkoaren herria eta beste batzuk gehiago.

Ospe handia du prozesio honen. Parte hartzen jende ugari biltzen da, aipatutako Hermandad horretakoak eta hainbat eskola eta parrokiakoak. Hauetaz gain, ikusle asko hurbiltzen dira Alde Zaharrera, eta ibilbide osoa jendez gainezka izaten da, eguraldiak laguntzen badu behintzat.

Sara

Koldo Ameztoren ipuin liburu berria Nafarroa Behereko herrietako esaldiez

L.E. / BAIONA

Koldo Ameztoti ipuin kontalari ezagunak Bazko astelehenean Saran gertatuko den Idazleen Biltzarrean 'Dena dela... Baxenabarreko' liburu berria aurkeztuko du. Bertan Nafarroa Behereko 37 istorio agertzen ditu, herrietako esaldien inguruan osatua. Maiatz Baionako argitateak plazaratu du liburu hau, 152 orrialdekoa. Ipuin bakoitzarentzat, Irene Borda Oragarreko marrazkilariaren lan bat azaltzen da. Liburu atsegingarriaren itxurako obra da. Umore ona pizten duen obretarik da eta ikusiz zein umorezko obra guti agertzen den Nafarroan edo beste herrialdeetan bi aldiz azpimarratzekoa da. Koldo Ameztoti kontalariak,

ahozko lanetan dabilanaz gero, gauza guti idazten du edo bederen argitaratzen. Duela lau urte lehendabiziko liburu bat argitaratu zuen Maiatzekin, 'Dena dela... Lapurdiko' tituluarekin. Hor, Lapurdiko herrietan gandi eramaten gintuen, irri frango sortuz. Aitzakia hau zen: herri bakoitzak badauka loturik gehienetan esaldi bat, umorezkoa edo berezitasun bati lotua eta honen esplikazioaren bila zebilan Koldo.

Kontalariak egitura bera eman dio hemengo istorio agerraldiari. Hala nola kapitulu bat bada 'Ibarlako mozkorak' izenekoa. Herri txiki honen arrakasta doi bat txarra ikertu ondoan, dio bertako jendea maiz lokartua aurkitzen zela bide bazterretan eta ho-

rrek pentsarazten zuela mozkorraldi baten emaitza zela. Erran gabe doa ipuin kontalari trebeak kontakizunaren estrategiak zehazki erabiltzen dituela interesaren eta irriaren sorrarazteko. Detailearen erabilpena, euskaldunen ohizko zuhurtzia eta ebidentziak, denak atseginez manipulatzen ditu. Dena den, dionez «hala bada, halabiz eta hala ez baldin bada, halatsu!».

Koldok horrela eskutik hartzen gaitu eta Nafarroa Behereko toki polit askotara eramaten gaitu, hauen ezagutza fina eskainiz. Bidaia hori liburuaren bidez lasaiki egin daiteke. Maiz norberak uste izango du dena asmakizun hutsa dela baina kontalari trebeak egia du erabiltzen bere logika bereziaren onduz.

Luzaide

Bolantak aterako dira igande honetan

IRUNEA

Bolantak kaleratuko dira igande honetan Luzaiden, euren jantzi eder eta koloretsuekin, lehen inauterietan ospatzen zena egiteko. Behiala, herriko auzo bakoitzak —Azoleta, Gaindola, Gaiñekoleta, Ondarrola eta Pektoetxea— ospatzen zuen bere inauteria, eta igandean denak biltzen ziren bolanten inguruan, baina herria jendez hustu zenean, Aste Santuko igandera pasatzea erabaki zuten, jende guztia herrian izan zedin. Banderariak, makilariak, giganteak, zapurrek eta zaldikok, horrela, desfilea egingo dute, eta muga zeharkatuko, Arnegi bisitatzeko. Bertan atsoa eta bere lagunak arteko borroka antzetzuko da, gazteak arropak kentzen saiatzen diren bitartean.

Navarrerriako iturritik

Juan Kruz Lakasta

Jarioak

Turrillas maisuak peñentzat idatzirik himno anitzen arabera, garai batean Iruñeak bazeuzkan Madrilak ez zituen zenbait gauza. Besteak beste, entzierroak, neskak, Sanferminak eta ospe handiko txakolina. Irakurle azkarra zaren horri berehala bururatuko zitzaizun txakolinarena Turrillasen asmakizuna zela, Sanfermin eta txakolin hitzen errimaren itzalpean sorturikoa. Oker zabilta, baina, burmuin oker hori; izan ere, duela zenbait hamarkada Iruñerria mahatsondo betetik zegoen, eta Ezkabako txakolin gorria zen nafar hiri-buruko tabernetan gehien edaten zena.

Beste kanta batek —honako hau ez da lehendakariaren aita-ginarrebak idatzirikoa— zera dio, «...a, a, a, ardo gorri naparra». Horixe da txakolinak porrot egin zuenean haren lekukoa hartu zuen edaria. Azken urteotan, baina, ardoarenak ere egin du. Banaka batzuek besterik ez dute hartzen «noski gaseosarekin» —euskaltegian dabilen lagun batek horrela esaten du «ardo gorria gaseosarekin»—. Egun garagardoa da jaun eta jabe gazteria iruindarraren ezarrietan.

Jada galdera hau egingen ze-



nion zeure buruari: «Zertara dator gazteriaren zaletasun etilikoen azterketa soziohistoriko hau?» Bada, ohitura etilikoen aldaketa Alde Zaharzaileen aldarrikapen garrantzitsu baten oinarria da. Mahatsardoa eta garagardoa edatea ez da gauza bera, ezberdina baita oso edari baten eta bestearen indar diuretikoak. Argi dago garagardoak eragiten dizun jarioa ardoak eragiten dizuna baino askoz handiagoa dela.

Ez dut ukatuko komuneko ilara harreman sozialetan aritzeko leku aproposa dela, eta egon badaudela maisu handiak ilara horietan ligatzeko gai ere badirenak. Baina, gau osoan zehar zenbat ordu galtzen dira ilara horretan? Hilara horretan zenbat aldiz igaro dituzu une zinez latzak barne jarioari ezin eutsiz? Ardo hil da, is dead, garagardoaren erresuman bizi gara, eta erresuma honetan komun handitzea premia larria da. Adi, taberna baten jabe zaren hori.

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑA

Krisiaren irudia hartua dauka, ezin uka, Osasunbidea. Joan den astean Iruñerriko lehen osasun laguntza zentroetan egin zen greba azken tanta izan da, baina aspalditik dator arazoa. 1993ko martxora arte zentro hauek —funtsezkoak zenbait urtetik hona egiten ari den osasun erreformaren barruan— goizeko zortzietatik arratsaldeko bostak arte zabaltzen ziren, baina orduetik aurrera goizeko zortzietatik arratsaldeko hiruretara murriztu zen ordutegia, eta uztailean larrialdietako hiru zentroetatik bi itxi. Ondoren bi osasun zentro arratsaldeko zortziak arte ireki ziren. Uztailean, Lehen Osasun Laguntzarako Zuzendaritzak erabaki zuen arratsaldeko zortziak arte irekitzea zentro guztiak, eta horren ondoren sortu dira arazoak.

Zeintzuk diren horretarako arazoak? Sos kontuak, nonbait. Horregatik, hain zuzen ere, haserrea piztu du profesionalen artean. Ordutegi berria betetzea profesional finkoei eskaini zitzaizkien aurrenik, baina hauek ez zuten onartu, eta orduan ordezko langileari heldu zion Administrazioak. Urrian ordu horiek langile finkoek egin beharko litzaketela jakinarazi zien zuzendaritzak langileei, baina hauen % 98ek sinatutako eskutitz baten bidez horren kontrako jarrera agertu zuten.

Izan ere, aipatu osasun erreformaren barruan, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da prebentzioa eta promozioa, hau da, osasun zentroak ez dira izango gaixoak sendatzeko zentroak soilik, ekintza zabalagoak antolatzeke egoitzak ere izango dira, osasunarekin estuki lotuta denak, eta ordutegia zabaltzeak sakon kaltetuko litzuke asmo horiek. Parlamentuan azaldu zuten, langileengan presioa «areagotu» egin da, eta osasun zentroen barne antolaketa zailago egin da. Halaber, kalitatearen maila jaitziaz duelara argudiatzen dute langileek, berez eman beharko liratekeen zerbitzuak —prebentzioa, ikerketa, ebaluaketa— ezin direlako eskaini, lan pilaketa dela eta. Halaber, larrialdietarako zerbitzuak kentzen ari dira, eta betebeharrak osasun zentroak bereganatzen ari dira. Martxora arte, larrialdietarako zerbitzuak bazituen berezko langileak, baina zeuden hiruretatik —Sanduzelai, Burlata eta Soltxaga— bakarria gelditzen da egun.

Horrekin batera, ez da osasun zentro berririk irekitzeko plangintzarik, eta Arrosadia, Donibane eta II Zabalgunean oraindik lehengo kontsultak daude zabalik. Iruñeko auzoen erdiak, bestalde, osasun zentrorik gabe daude oraindik. Iruñerrian soilik azaldu da arazoa, Nafarroako beste inguruetan arazo arras bestelakoak dituztelako, baina Famili Plangintzarako zentroek



Lehen osasun laguntza zentroetako hemeretzi zuzendarik dimisioa aurkeztu dute aste honetan.

AITOR BAYO

Eri dabil Osasunbidea, gaitzak pilatuta. Aste honetan hemeretzi zuzendarik dimisioa aurkeztu eta gero kolokan jarri da Administrazioak ordutegiak zabaltzeko egiten ari den politika, eta COFES zentroak eta osasun zentro berriak paratzeko eskaerak ez dira ixildu. «Kaosa» da batzuen hitza, eta pribatizazioaren mamua ikusten hasiak dira asko.

Osasunbidea, eri

(COFES) arazo franko sortu dute Sakanan, Malerreka eta Tafallan.

Zer eragin dauka horrek guztiak eguneroko lanean? Batzuek handia, beste batzuek arazo teknikoak besterik ez da. «Orain arte lortutakoa deuseztatzen joan dira» dio Manu Ezeolaza Burlatako Osasun Zentroko langileak, «eta beti erabiltzen dute aitzakia bera: dirurik ez dagoela. Baina Burlatako COFESen, adibidez, hiru aldiz aldatu dute ginekologoa hiru astetan». «Ezin da arazo guztiak nahastu» azaldu du Kiko Betelu Txantreako Osasun Zentroko zuzendariak, «eta guretzat arazo teknikoak da. Lehen osasun laguntzarako zentroetan oso erabaki tekniko larriak hartzen ari dira, eta langileekin batera negoziatu gabe».

Hala ere, gehien aipatzen dena pribatizazioa da, osasuna eta beste arlo publikoko mamurik handienetakoa. Batzuen ustetan prozesu honen atzetik osasunaren zerbitzu zenbait esku pribatuetan uzteko ahalegina dago, oso gertu dugun adibideari jarraiki. Izan ere, EAEn hasia baitute antzeko prozesua. Iñaki Azkunak zuzendutako Osasun Sai-

lak iaz aurkeztu zuen Euskal Osasun Arloko Sistemaren Estrategi Plana izeneko egitasmoa, hainbat zerbitzu mugatu eta esku pribatuetan uzteko. Konpetitibitatea da egitasmo honetan oinarritzeko hitza, sistema berriaren bidez, osasun zentroen arteko lehia ezarri nahi baita, «gizarteak zerbitzu hauetatik ahalik eta

Arazoez hitz egiteko gehien aipatzen den hitza pribatizazioa da, arlo publikoko mamurik handiena.

errentagarritasun handiena atera ahal izateko». Zerbitzuen murrizketa ekarriko du gainera EAEko Osasun Sailaren egitasmo berriak, azken batean argi zehaztu gabe dauden oinarritzko zerbitzuak bakarrik hartuko baititu osasunaren sektore publikoak bere baitan. Hori dela eta, aseguru eta poliza pribatuak

egiteko gomendatuko zaie herri-tarrei.

Nafarroan izan zen saio bat Azpilagainekeko zentroaren pribatizazioarekin, baina Gobernuak atzera egin behar izan zuen Parlamentuak ez zuelako onetsi. Lehen osasun laguntzaren arazoa aurrera eramateko sortu zen koordinakundea kontra azaldu da garbi. «Guk aski profesionalak gara» dio Eziolazak, «eta molda gaitzake dagoenarekin. Oraingoz, baina, Administrazioak ez du soluziobiderik ematen, eta kaosa gero eta handiagoa da. Asmoa omen da kaosa sortzea gero aitzakia edo bat izateko pribatizazioarako». COFESen kasua garbia da. Itxaron zerrenda luzeak, jendeak pribaturako bidea hartzen du. «Dauden zentroak ez dituzte kentzen» aipatu du Bel Pozueta Altsasuko COFES sortzeko eratu den taldekoak, «indar handia dutelako, baina daudenak indartzeko inolako asmorik ez dago, eta COFESen barruan daudenek ikusten dute hori».

Duela zenbait hilabete eztabaida izan zen zentroetan bertan, eta gehienak publikotasunari eustearren alde badaude ere, zenbait arazo konpondu beharrekoak

direla deritzote askok. «Publikoan dirua purrustaka galtzen da» dio Arantxa Zabala Alde Zaharreko Osasun Zentroko langileak, «hainbeste funtzionarioen artean inork ez baikaitu kontrolatzen. Baina pribatizazioa hauen eskuetan utziz gero desastrea litzateke, eta jendea kritikoa da. Hauen irizpidea dirua litzateke, eta horren arabera lor liteke kalitatea. Hori bai, langileen eta zerbitzuen kalitatea neurtzeko bideak jarri behar dira».

Hilaren 24an egindako bileran langileen % 80k egin zuten koordinakundearen alde, eta uste osoa dago bertan pribatizazioaren aurka egingo dela, baina herritarren artean horren kontzientzia lantzeko beharra azpimarratu du Ana Arillo Txantreako Osasun Zentroko langileak. «Herri mailan indarra egiten badugu, gauzak maltsoago joanen dira. Pribatizazioak kalitatearen jaitziera ekarriko luke, ordaintzen denaren arabera etorriko baita kalitatea, eta dirudunek aukera gehiago izango dute. Horregatik, jendeak jakin behar du zer gertatzen den, eta mobilizazioak egin behar dira, oso gauza garrantzitsuak erabakitzen ari direlako».

Lehen osasun laguntzan aldaketak

Lehen osasun laguntzan sartutako aldaketek eragin dituzte, neurri batean bederen, egun Osasunbidean diren egoera istilutsua eta arazo gehienak. Astelehenean Iruñerriko hamar osasun zentroetako zuzendari eta farmazia arduradunek beren dimisioa aurkeztu zuten osasun sailaren arlo honetan egiten ari den politikarekin beren desadostasuna dela eta. Arazoak funtsezko bi adar zituela azaldu zuten prentsaurrekoan zuzendariak: aurrekontuak osatzeko zentroetako arduradunei egin zaien muzina, eta ordutegiaren zabalpena.

Osasun zentruetako zuzendariaren figura duela bi urte sortu zuen Osasunbidea, bi helburu zituela: zentro hauei autonomia handiagoa ematea eta gestioa egunerokoarekin lotura dutenen esku uztea. Bi urte hauetan desadostaunak eta arazo franko izan dira zuzendarien eta Osasunbidearen artean, baina azken ziztada, Kiko Betelu Txantreako osasun zentruko zuzendariak azaldu duenez, 1994ko aurrekontuaren gaia izan da. «Ez digute ezta deitu ere egin aurrekontuak eztabaidatzeko, eta itxi zaitu baita partida txikienetan ere negoziatzeko aukera. Badakigu krisian gaudela, baina irizpide eskasak erabili dira aurrekontuak murrizteko, arlo orotan egin baita murrizketa, arlo batzuek besteek baina garrantzi handiagoa dutela jakinik ere». Horrekin batera, zuzendariendako 'eskupeko' benetan harrigarriak izan direla azaldu zuten, milioi erdi pezeta-koak zenbaitetan. «Nola joan gaitezke gure zentroetara dirurik ez dagoela esanez?».

Bigarren desadostasun nagusia zentro guztietan paratu den ordutegi berriari dago lotuta. Parlamentuak onartu zuenez, zentro guztiek atek irekita izan behar zituzten arratsaldeko zortziak arte, zerbitzua jende askorengana heltzeko xedez, baina ondorioak konpondu nahi zen gaitza baino franko okerragoak izan direla diote medikuek. «Arratsaldean gutxienezko langileak soilik daude zentroetan, eta ahal dutena egiten dute, baina ez da konpondu arazoa, goizean ematen diren zerbitzuak ez baitaude». Halaber, arratsaldean ematen den zerbitzua baja eta oporretakoak ez betetzeagatik ateratzen den diruarekin betetzen dela salatu dute medikuek, eta politikak haserre handia eragin duela ohartarazten.

Dimisioa martxoaren 31n aurkeztu zuten zentroetako 20 arduradunetatik 19k eta Jose Luis Alli Osasunbidea-ko gerentearekin negoziaketan saiatu dira azken hilabeteotan, emaitzarik gabe. Dimisioak ardura guztiak ez dituela ezabatuko azpimarratu zuten, alabaina, zuzendariak

Hiru gaitz

Hainbat auzo osasun zentrorik gabe

Egun 12 osasun zentro daude Iruñerrian, kontuan harturik Ermitagaina eta Mendillorin zabaldu berri diren biak, baina zona garrantzitsuek horrelako zerbitzurik gabe jarraitzen dute. Azken urteotan borroka sonatua izan da Txantreako bizilagunek beren zentroa lortzeko egiten baina, honekin batera, Alde Zaharrean, San Juanen, Amaiurko Gazteluan eta Azpilaginean ez da behar bezalako lokalik.

Txantrean duela hiru urte hasi ziren eskaerak Gobernuak osasun zentroa eraiki zezan, orain duten zentroa egokia ez zelakoan, baina gestioak gehiegi berandutu dira, Iruñeko Udalak utzi nahi zuen egoitzarekin —zinema zaharra— arazo franko izan direlako. Azkenean, beste orube baten truke aldatu eta badirudi Txantreak bere osasun zentrua izango duela. Oraingo egoitzak ez dauka gelarik mintzaldiak egin ahal izateko, eta sendagileek sotoan lan egin behar izaten dute, oso kontsulta txikietan. Halaber, administraziokoek oso gela txikia dute.

Bertan, osasun zentroa hiru urte hauetan egin den borrokari esker lortu dela sinetsirik daude. «Bilera asko egin ditugu urte hauetan», azaldu du Ana Arillo Txantreako zentroko langileak, «eta koordinakundea sortu genuen nahi genuena lortzeko. Hiru manifestaldi, sinaduren bilketak, mozioak udalean... denetarik, baina maltsoegi joan da dena. Osasun zentroa proposatu zigutenean guk uste genuen ez zutela egin nahi, baina presiopean azkenean egin behar izan dute».

Antzeko egoera bizi da Iruñeko Alde Zaharra. Egun bertako biztanleek Olivetoko Kondean dagoen eraikin erraldoira joan behar izaten dute, hor baitago osasun zentroa, baina Alde Zaharrean bertan egiteko lehendabiziko bilerak hasiak dira. Joan den larunbatean Auzo Elkartearen zentzua erizain eta sendagileekin bildu zen, eta udalaren eta gobernuaren aurrean harremanetan hasteko lehendabiziko urratsak emateko hitzarmena hartu zen. Auzo Elkartearen aspaldiko eskaera da osasun zentroarena, ikastola edo oinezkoendako planifikazioa diren gisan, baina asmoak ez du aurrera egin. PSOE agintean zegoen garaian proposamena egin zen, eta Caldereria kalea aipatu zen, baina dena ezezean gelditu da.

Aipatu behar da osasun zentroko langileak axolagabe direla gaitz honetan, eta asko orain dauden tokian segitzearen aldekoak dira. «Hemengo profesionalak eroso daude hemen», dio Arantxa Zabala bertako langileak, «baina nik uste dut osasun zentro batek oso kokapen ona izan behar duela, ezaugarri bereziekin».



Langileak pribatizazioaren kontra daude.

JOXEAN GOYA

COFES indartzeko borondaterik eza

Familia Plangintzarako Zentroetako (COFES) arazoaren inguruan joan den otsailean bildu ziren Sakana, Malerreka eta Tafallako hainbat emakume, horren beharra azpimarratzeko eta administrazioaren jokabidea salatzeko. Egun 4.000 lagunekoz zentrotan dago Nafarroan, COFES zentroetan bakarrik, eta zenbait kasutan zortzi hilabetez esperoan egon behar da ordua lortu arte. Emakume hauen ustez, osasun politika globala eratu behar da, batez ere hezkuntza sexualari dagokionez, eta beste zonek dituzten eskubide berberak eskatzen dituzte, «ez baikara bigarren mailako biztanleak». Gogoratu behar da duela hamar urte onartu zela COFES egiteko erabakia, eta Nafarroan soilik Iruñean eta Tuteran daude egun.

Protesta egin ondoren, gauzak mugitu egin dira, eta Lizarran, kasu, duela bi urte onartuta zegoen dirua gastatzea erabaki dute azkenean; zentroa ekainean zabalduko da. Tafallan ere luze gabe zentroa irekiko delakoan daude bertakoak. Sakanan eta Malerrekan, arrastorik ez. Sakanakoak Julio Perez Lehen Osasun Laguntzako Administrazioa eta Zerbitzu Nagusiko buruarekin bildu ziren joan den hilean, baina honek Jose Luis Alli Fernandez Osasunbidea-ko gerentearengana bidali zituen, gastuak agintzeko eskumenik ez zuela argudiatuz. Hara heldu, eta «ezeren berririk» ez zuela azaldu zien gerenteari, eta harrিতuta gelditu ziren emakumeak. «Lotsagarria izan zen», azaldu du Bel Pozueta Altsasukoak, «esan baitzigen ez zekiela zenbat diru zegoen ezta guk proiektu bat genuen ere. Orduan informazio guztia utzi genion eta berriro biltzekotan gelditu gara».

Eta Altsasun badute lokala, iaz, COFES sortzeko dirua bazezgoela jakin zutenean, Udalariek eskatu baitzioten. Honek maisuen etxe zaharretan eman zizkion bi gela, eta emakumeek proiektua aurkeztu zuten. Gobernuaren dirua, baina, azkenean ez zen heldu. Aurten berriro gerta ez dadin mobilizazioak egingo dituzte eta maiatzaren 22rako manifestaldia iragarri dute. Horrekin batera, sentsibilizazio kanpainari ekingo diote inguruan. «Askotan hartzen da emakumeen arazotzat, baina herritar guztien arazoa da. Gazteen artean, adibidez, ez dakite planing bat zer den ere». Horregatik, talde guztietara joko dute, tokian tokiko kontzientziazioa egin dadin.

Haien asmoen arabera, lau pertsona beharko lirake Sakanan: egun erdiko ginekologo bat, hezlari bat, administrazio langilea eta erizaina. Garbi dute erakina izateak ez dituela gaitz guztiak konponduko.



XAKEAN



'Paz de Ziganda' IV. oroigarriaren 9. ihardunaldiko partida, 1994ko martxoaren 20an jokatu (Xake Aktiboa: Ordu erdiko neurketak)

Felix Izeta (Gipuzkoa)- Pedro Viñal (Nafarroa).

1-e4, c6; 2.d4, g6; 3.Zc3, d5; 4.h3, Ag7; 5.Zf3, e4; 6.Ze4, Zf6; 7.Zf6 xa, f6; 8.Ae3, Ae6; 9.Ae2, Zd7; 10.0-0, Zb6; 11.b3, 0-0; 12.c4, Dc7; 13.a4, aG-d8; 14.Dc1, fG-e8; 15.a5, Zc8; 16.Gd1, Ze7; 17.Af4, Dc8; 18.Da3, Zf5; 19.aG-c1, g5; 20.Ah2, Zh4; 21.Zh4, h4; 22.d5. Txuriak itsutu egin dira, eremua irabazi nahian ('Af3' hobeto zuten). Beltzek orain oso erraza daukate partidaren kirtena hartzea. 22...Ad5; 23.d5, Ge2; 24.c6, c6; 25.Dc5, dG-e8; 26.Da7, Ah6; 27.Ga1, Df5; 28.Dd4. Beltzak erasoan ditugu. Baina beren erregea ere ez dago oso babestuta. Ikus koa-droa. Kontu handiz prestatu behar da jarraipena.

28...Gf2. Ez da onena. Gerta liteke: 29.Ge1, Ge1 xa; 30.Ge1, Ga2; 31.Ge8 xa, Eg7; 32.Ad6. Bizitza emanen litzaike txuriei. Erabakiorragoa '28...Af3' zen: 29.Dg4 xa, Dg4; 30.g4, Gf2; 31.Eh1, Gb2; 32.Gd3. Ez legoke aise garaitzeko modukoa, baina abantaila txikia mantenduko lukete beltzek. 29.Dg4 xa. Damen trukea une txarrean bilatu dute. Partida iluna jarriko zaie txuriei. 29...Dg4; 30.g4, eG-e2; 31.Eh1, h3; 32.Gd3, g2 xa; 33.Eg1, Gf1 xa; 34.Gf1, f1=D xa; 35.Ef1, Gh2; 36.Gd6, Ga2; 37.b4, Ad2; 38.Gd4, c5; 39.Gd8 xa, Eg7; 40.c5, Aa5; 41.Ga8, Ga1 xa; 42.Ee2, Ac3; 43.Gc8, Ae5; 44.c6, Gc1; 45.Ed3, Eh6; 46.Ee4, Gc4 xa; 47.Ed5, Gd4 xa; 48.Ec5, Gg4; 49.Gd8, Gg1; 50.Gd7, Eg6; 51.Gd2, h5; 52.Gc2, h4; 53.Eb6, Gb1 xa. Txuriek etsi zuten.

Historia honen berri ez du inork, oraintxe gertatua delako eta inori kontatu ez diogulako, baina jakingo duzue ibaien egoera izango da. Etxarrin, beste herri batzuetan bezala ibaia igo egin zen, eta baita gaineztatu ere. Beste urte batzutan —orain dela zazpi, zortzi urte— igoerak handiagoak izatera ailegatu ziren, baina hemen azaltzen dena ipuin honen ideia emateko nahikoa izan zen.

Etxarri Aranatz 1312. eta 1351. urteen artea eraikia da eta orain arte Burunda ibaiak ehundaka aldiz gaineztatzeko hautatu duen lekuetako bat. Orain dela egun mordoxxa berriro aterata zen, eta lagun batzuekin batera ni ibaia ikustera joan nintzen. Iluntzen hasi zen eta lagunak joan egin ziren. Plazan itxarongo zigutela esan ziguten guk joan nahi ez genuelako, bagenekielako erretzera joaten zirela. Ordu hartan Juan eta biok bakarrik geratu ginen zubian, ibaiari begira. Handik begiratuta, presan puskatzen ziren korronteen ur marroiek itsasoak arroken aurka botatzen dituen olatuak ziruditen. Presara joan ginen eta tripetan hutsune antzeko batekin begiratu genituen presako urak. Ez da ez gutxiagorako, zeren zorabiatzen zaren inpresio berbera ematen baitizu. Uraren barnean turbinak zeudela zirudien, eta irudi hura aurpegitik kentzeko aurrerago joan nintzen, ur geldia goetara. Momentu hartan harrien gainean nengoan, grabila antzeko bat, eta atzeraka egitean irristatu eta uretara joan nintzen. Oraintxe bertan pentsatzen dut: «Zer gertatu zatekeen presan erori banintz?» Eta ziurrenez txiki-txiki eginda geratuko nintzatekeela pentsatzen dut. Momentu hartan pentsatu nuen bakarra hau izan zen:


—Lagundu! Jainkoarren ez bakarrik utzi! Juan lagundu, lagundu! Haizea, haizea behar dut, haiz...

Nere onera etortzean Juanek neri zaplastakoak ematen ziharduen eta ni ibaian edandako ur zikina botatzen hasi nintzen. Berak salbatu ninduen eta oraindik bizia zor diot. Errekuperatu ondoren gosez genbiltzala konturatu eta jateko bila hasi ginen. Fruituak bakarrik topatu genituen eta ez ziren nahikoak izan. Gosez lokartu ginen eta gosez esnatu. Bapatean Juanek ideia on bat izan zuen:

—Aizu, oraindik hemen al duzu giltzarian edukitzen duzun klipa?

—Bai, badut (oraindik nuen zeren arro-

Miraria



Jose Luis Asensio

(ETXARRI-ARANATZ)

rraitu, beno beste aukera bat han geratzea zen, baina txorakeri bat zen kilometro t' erdi ez zegoelako Etxarri eta Lixarrego artean. Orain pentsatzen dut erreka jarraitzea zentzuzkoena izango zela, baina momentu hartan bestea hautatu genuen.

Basoa ederra zen toki hartan, zuhaitz izugarriak betirik. Zuhaitzak oso handiak ziren, eta beraien larrua zulatua eta zimurtua zen. Beraien ostoa eroriak zeuden gehien bat, baina erori ez zirenak oso kolore arraroekin zeuden tintatuak, berde eta marroiaren nahasura batekin. Adarretan zehar kattagorriak ibiltzen ziren jolasean nonnahi, eta baita txoritxoak ere saltoka...

—Juan, trenbidea topatu dut!



petan auskintzen diren giltzaritariko bat nuen) zertarako nahi duzu?

—Ekarri eta ikusi.

Klipa eman eta harrituta geratu nintzen. Kliparekin amu antzeko bat egin zuen eta arropen tolesduren hariet lotu zuen. Gero makil bati lotu zuen hari eta erreka bota zuen zerbait harrapatzeko asmoz, baina hori Mac Giver edo Robinson Crusoe bezalako mamuek bakarrik egin dezakete, eta ez 13 urteetako bi mutikok Aranatz jabez kendu behar izan genuen gosea.

Nahi ta nahiez Etxarri eta Lixarrego artean egon behar genuen, zeren uretan denbora asko egon arren Lixarregoko zubia ez genuen zeharkatu eta horren ondorioz nola itzuli pentsatzen hasi nintzen. Bi aukera genituen, erreka jarraitu edo trenbideari ja-

Etan trenbideari segika Etxarriraino ailegatu ginen. Elkarri begiratu eta gure gurasoen haserreak imaginatzea ezinezkoa zela konturatu ginen, baina gauza arraro bat zegoen han, gure arropak. Gure arropak garbiak eta zimurrik gabeak zeuden, lixatu beiriak egongo balira bezala. Iluntzen hasi zen eta gu plazara joan ginen. Lagunak topatu genituen eta hain normal ari ziren portatzen ze urduritzen hasi ginen. Etxeratzeko orduan etxera joan eta gurasoek ere berdin zihardutela ikusi genuen.

Hurrengo egunean elkarri begiratu eta dena azaltzeko azalpen arruntik ez zeudela konturatu ginen, miraria izan ezik, eta liburutegira joan ginen idaztera hau ez galtzeko, zeren oraindik inork ez ditu iraganeko ordu haiek gogoratzen.

Saldias herriaren eskomikua

1723. urteko Otsailaren 7an gertatu zen. Saldias eta Eratsunen artean bederatzita mugari jarri zituzten, nori berea emanez. Atakola izeneko dermiotik hasirik Azango erreka bitarte horretan. Eta ahalegina alferrik gertatu zen, saldiastarrek bederatzita mugari-tatik zortzi aterata eta desagertarazi bait zituzten. Orduan, Saldiasko apaiza zen Huarteko Mikelek afera Inkisiziora eraman zuen, saldiastarren joera horrek sor zitezkeen arriskuei kasu egiteko eskatuz. Apaizak zionez, saldiastarrak ez ziren Jaungoikoaren beldur, eta are gutxiago legegizon batenak. Hori zela eta Iruñoko Elizbarru-

tiak segidako gutuna plazaratu zuen. Zilegi bekit erdaraz pasarte aldatzea, bere holan ikus dezazuen afera eta garaiko idazkera dasta.

«...y obstinado perseveras en estado de condenación è imitando la dureza de Faraon, os hazeis sordos à las voces y clamores de la Iglesia. Y es justo que donde crece la malicia, crezca también la pena: por tanto reagrandando las dichas Censuras, pronunciamos y promulgamos contra nosotros anathema y maldición. Anathema: Maldita sea el manjar que comieres, la bebida que bebiere-des, y el ayre que respiraredes,

JUANTXO URDIROZ



Ez usteak zure atean joka

Apaizak zionez,
saldiastarrak ez ziren
Jaungoikoaren
beldur,
eta are gutxiago
legegizon batenak.

maldita sea la tierra que pisaredes y la cama en que durmieredes, no llueva el Cielo sobre cosa vuestra, sino fuego, y piedra: no gozeis fruto de vuestros trabajos, ni halles quien os socorra en vuestras necesidades: siempre que fuerdes a juicio, salgais condenados; la maldición de Dios os alcance: los Santos Angeles os desamparen, los demonios os acompañen de dia y de noche, y la tierra os trague vivos, para que en cuerpo y alma descendais a los infiernos y no quede entre los hombres memoria vuestra. En cuya significación mandamos matar candelera en el agua y que arrojadas despues por el suelo, sean holladas con los pies, y nadie se sirva de ellas como cosa maldita...»

Denok dakigu ze arriskutsuak izaten diren muga kontu hauek,

zenbat sarraskiren sorburuak ez ote diren izan. Baina honelako teinkak ez dira beti tomahawkadakaz amaitzen. Badira, legendetan bederen, odolik ixuri gabeakoak. Esate baterako Iturgoiengo ermitaren kasua. Andia mendian badago ermita bat, Hirurtasun Sainduari emana. Andia mendia denona denez, jendea ez zen ados jartzen norena ote zen ermita. Lehiaketa baten bitartez afera kontopontzea erabaki zuten. Ermita berea zela uste zuten herriek korrikalari bana aukeratu zituzten. Ermitako kanpaiak jotzean, herri bakoitzatik aterata behar zuten korrikalariak. Jaungoikoak ermita zaplandari beti bereganatzen utziko ez ziolakoan zegoen. Iturgoiengoak irabazi zuen, eta orain Iturgoienek bere mugez kanpo badu ermita bat.

Bidegurutzean

JUAN KRUZ LAKASTA / IRUNEA

Orotara Igor Mitoraj eskultore poloniarren 36 eskultura dira ikusgai egunotan Nafarroako Museoa. Guziak marmol, brontze, burnia, terrakota eta erretxinaz, 1990a eta 1994a bitartean egindakoak dira. Guzietan giza gorputza da gai bakarra. Soinak, irudi irekiak eta antzeko gai klasikoak lantzen ditu Mitorajek. Horiei, baina, ikutu pertsonal eta modernoa ematen die.

Mitorajena ez da klasikotasunaren ikuspegi arkeologikoa. Berak klasikotasunaren ikuspegi

tetik, askoz errezagoa delako zati bat gogoratzea eskultura osoa gogoratzea baino».

Horren guztiaren bitartez, bere sustraiak bilatzen ditu. «Klasikotasuna bilatzen dut, eta horren barnean zer dagoen ikertzen saiatzen naiz. Mediterraneoan murgiltzen diren sustraiak bilatzen ditut. Hori, baina, gaur egun egiten dut, une zehatz honetan». Hori dela eta, eskultore klasikoek ezezik beste hainbat eskultorek ere izan dute eragina berarengan. «Italian bizi naiz, eta Italiako egileek, klasikoek zein garaikideek, nigan izan duten eragina

Igor Mitorajek gurasoak poloniarrek baditu ere Alemanian jaio zen, Oderanen, 1944. urtean. Krakoviako Arte Eskola eta Arte Akademian egin zituen margolaritza ikasketak, beti ere klasikoetara begira. Bere koadroak Polonian ikusgai jarri eta gero, 1968. urtean Parisera aldegin zuen, bertako Arte Ederretako Eskola Nazionalen arte ikasketekin aurrera segitzeko.

1974. urtera arte ez zuen eskulturagintzan lehen urratsa eman. Aipatu urte horretan Hego Amerika bidaia egin zuen, eta orduan erabaki zuen eskulturak egiten hastea, klasikotasunean gehiago sakontzeko xedeaz. 1975. urtean estreinakoz erakusketa zabaldu zuen Parisen. Lortutako arrakastaren bultzadaz Parisen bertan eskultura estudioa ireki zuen Mitorajek. Geroago New Yorkera joan zen, eta tar-



teka-marteka Greziara bidaiak egiten zituen klasikoen lana aztertzeko.

1979. urtean lehendabizikoz izan zen Italian, Carraran hain zuzen ere, eta bertan marmola lehengai ezin hobea zela erabaki zuen. Lau urte geroago, 1983an, Carraran estudio bat ireki zuen, eta egun Italian ematen du urte erdia, eta Frantzia beste erdia.

Igor Mitorajen eskulturak maiatzaren 8ra arte izanen dira ikusgai Nafarroako Museoa. Ordura arte, lanegunetan goizeko hamarretatik arratsaldeko ordu biak bitartean, eta arratsaldeko bostetatik ilunabarreko zazpiak arte zabalik izanen da erakusketa. Jaiegunetan, berriz, goizeko hamarretatik arratsaldeko ordu biak arte.



surrealista, magiko eta fantastikoa ematen du. Horretarako eskultura lehengaien erabilera bikainean oinarriturik, ikuspuntu aniztasunerantz abiatzen da. Mediterraneoan klasikoen gertu, Miguel Anjelengandik hurbil, eta Delvaux, Magritte eta Dalirengandik ez oso urrun, hortxe kokatzen da Igor Mitoraj, klasikotasunaren eta modernitatearen bidegurutzean.

Ekialdeko artista Iruñean izan zen erakustaldiaren inaugurazioan. Berak azaldutakoaren arabera, bere obraren klasikotasuna «materialetan eta hauek lantzean lortzen den kalitatean datza». Modernitatea, berriz, «irudien zatiketean». Irudiak zatika lantzen ditu, gorputz atal ezberdinak eskultura ezberdinetan landuz. «Batetik, eskultura horrela sentitzen dudalako, eta bes-

oso indartsua da, eta eragin hori gehiegizkoa izan ez dadin horren aurka borrokatzen naiz».

Egun, klasikoen lan sistemak ikertzen ari da, eta horien barnean bereziki burnia lantzeko orduan erabiltzen zutena. Burniaz eta eskulturaz ari zelarrik, Txillida miresten duela azaldu zuen. Hala, arkitekturaz ere mintzatu zen. Haren irudikoz, «eskultorearen eta arkitektoaren arteko aspaldiko harremana galdu da, eta hori txarrerako gertatu da». Egun Frantziako, EEBBetako eta Italiako hainbat plazatan paratuko dituen eskulturetan lan egiten ari da.



«Ertzean utzi dugu batzen gaituena»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

Ez dira sobera lehen Aberri Egunez oraindik gogoratzen direnak. Asko hil direlako, eta gelditzen direnetako beste hainbeste oroitzen ez direlako. Batzuek ere nahita ahaztu dute. Xabier Cunchillos iruindarrak, ordea, gogoan ditu ordukoen berriak, eta kontatzeko gogorik ere ez zaio falta. 1933an Bilbon egin zen lehendabiziko Aberri Egunean ez zuen ego-

«Askapen nazionalerako mugimendua, 1936an, EAJn zegoen, orduko gure EAJ ahantzezin hartan».

dela eta, Iruñeko pertsonaia batekin topo egin genuen Donostiako Aberri Egun hartan, ezkutuan edo aldendu beharrean, harro-harro zebilena, itxura eginez. Pertsonaia horrek, frankismoaren garaian, kargu garrantzitsua bete zuen, eta nazionalista eta demokraten mailua izan zen. Ba, Aberri Egun hartan, oso atsegin solastu zen nere familiako kideekin, beste keinurik gabe».

1935ean Gasteizen egin zen

hauek izanik ere, ez zuten partaidetza jaisterik izan».


Orduan moztu zen katea. Egun horiek ezaugarri komunak izan zuten: kontzentrazio handiak, ekitaldi folkloriko-artistikoak, eta ekitaldi politikoak, orduko gizon ezagunen partaidetzarekin. «Askapen nazionalerako mugimendua, orduan, EAJn zegoen», azaldu du Cunchillosek, «gure orduko EAJ ahantzezin hartan. Halaber, denok zuten ordena eta jatoritasun handia, herriaren etsaiek aguanta ezin zezatekena. Denok zuten kontrako jarrera bortitza, paratzen ziren oztopoak zirela eta».

Garaiak aldatu dira, baina oztopoak ez, eta Alfredo Jaime alkateak aurtengo egunerako aipatu dituen debekuak boterearen «soberazko erabilera» dela dio abertzaleak. «Alkateak badu joera nabaria besteen bizitza ezezik berarena ere konplikatzen. Gaizki omen dabilta gauzak bere partiduan horrelako karguak betetzeko bera baino pertsona hoberik ez badute, baina guretzat ona izan daiteke gabezia hori. Oso esanguratsua da alkate baten inpartzialtasuna, eta festa hondatu asmoz ari da, beste helbururik gabe. Batzuetan harrotzen duen 'bakezaletasunak' ez dio galarazten biolentziaren suari su ematea. Horri hipokresia deitzen zaio».

Ordukoak eta gaurkoak konparatzeko batasuna azpimarratu du, dudarik gabe, Cunchillosek. «Ulergaitza da gaur egungo jarrera, irizpideak eta jokaerak batzea inoiz baino beharrezkoagoa delarik. Darماغun itsukeriak ez digu uzten berez batuak izan beharko luketen ekitaldietara hurbiltzen, eta bazterrean uzten dugu batzen gaituena. Halaber, nere ustetan liderrari gehiegizko garrantzia ematen zaio egun, eta oinarrietan inizatiba falta areagotu egin da. Liderra izatea lanbide bihurtzen ari da, eta horrek arriskua badakar, herriarentzat benetan beharrezkoa zer den ikusten ez baitie uzten».

Xabier Cunchillos


ABERTZALEA



SOSLAIA

Aberri Eguzalea

Angelun (Lapurdi) eta Iruñean ospatuko du Herri Bataunak igande honetan Aberri Eguna, eta bi herrietan polemika piztu da, bertako alkateak azaldu dituzten kontrako jarrerak direla eta. Urrun daude 36ko gerra aurreko Aberri Eguna, baina bada oraindik gogoratzen dituenik, bizi zituelako eta eragina izan zutelako beregan. Xabier Cunchillos iruindarra dugu horietako bat. Abertzaleen familian sortua, haste-hastetik parte hartu zuen orduko Aberri Egunean, Bizkaiko hiriburuan egin zen lehendabizikoan izan ezik.



Lehenengo Aberri Egunean ez zen izan, «autoan tokirik ez zegoelako».

JOXE LACALLE

terik izan, baina, eta gogoz kontra. «Etxeko kotxea beteta zegoen, eta garai hartan gazteak helduen mesedetan sakrifikatzen ziren. Orain aldrebes gertatzen da, gazteak nagusi izateko joera handia dagoelako. Nere belaunaldia bi joeren arteko trantsizioak harrapatu du eta, oro har, ezer baino gehiago sakrifizioak ezagutu ditugu guk. Bertan egon zirenek esan zuten, Aberri Egun hura kontzentrazio gaitza izan zen, arlo guztietan».

Hurrengo urteko Aberri Egunean izan zen Cunchillos, eta hortik aurrera ahal izan zuen guztietan hartu zuen parte. «Familia osoa abiatu ginen Donostiara, eta goizean goizetik hartu genuen parte han izan ziren ekitaldi guztietan. Eguna ederra izan zen, errespeta handiz egin zen, eta jen-

dea zuzentasunez aritu zen». Orduan antzemango zuen Cunchillosek pertsonaia batzuen jokaera maltzurra, Euskal Herriak urtebete geraogo pairatuko zuen gerra zibilaren iragarpen gisa. «Orduko nere gaztetasuna eta igaro diren urteak gora-behera, gauza bitxi batzuk gogoan ditut; orduan harrigarriak egiten zitzaizkigun, baina ondoren azalpen garbia antzeman genien. Orduko Errepublikak gaztearen irudi laikoa eta erradikala zabaltzeaz temati arduratu ziren batzuk, nekazaritza erreforma eta erlijio askatasuna zela eta, eta beldurra zabaldu zuten, eskuina izutu arte. Gehien beldurtzen zutena erreforma soziala zen, eta horregatik batzuek bazuten esperantza euskal mugimenduan, gure herria kristau errotua zelakoan. Hori

Aberri Eguna, eta partaidetza eskerga gogoratzen du Cunchillosek, besteetan bezala. Ospakizun hauetan antzeman ahal izan zen anaitasunezko giro honek ondoren piztu zen gorrotoarekin zer ikusirik ez zuela azaldu du euskaltzaleak. «Ulergaitza da gure arerioek 36tik aurrera izan zuten jokaera. Elizaren pertsonaia askok ez ikusiarena egin zuten, eta gehiengoak suari su eman beretik ez zuten egin. Hori lagungarria izango zen geroago etorri ziren ondorioak azaltzeko».

Eta 1936an Iruñean ospatu zen Aberri Eguna. Oztopo ofizial ugarien artean egin zen Aberri Eguna, hain zuzen ere. «Baimena egun batzuk lehenago kendu zuten, eta bertan behera utzi behar izan zen. Azkenean, beste egun batean ospatu zen. Agintarien maniobra

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

